



bizkaiko berrikuntza
behatokia
observatorio de la innovación
de bizkaia

NORA BIDEA

BERRIKUNTZAK BIZKAIKO ENPRESETAN

duen garrantziari buruzko inkesta

Laburpena betearazlea



HASIERA	3
BIZKAIKO BERRIKUNTZA: GAKOAK ETA ERRONKAK	7
ENPRESA BERRITZAILEAK	12
❖ Berrikuntza arloak	16
❖ Jarduera berritzailearen ondorioak	18
❖ Berrikuntzaren arrakasta-maila	19
❖ Berrikuntzaren baldintzatzaileak	20
BERRITZAILEAK EZ DIREN ENPRESAK	21
ENPRESEN LANKIDETZA	23
BERRITZEKO ETORKIZUNEKO ASMOA	25
❖ Eskatutako laguntzak	27
BIZKAIKO BERRIKUNTZA INDIZEA	28



HASIERA

Agiri hau “**norabidea: Berrikuntzak Bizkaiko Enpresetan daukan Garrantziari buruzko Inkesta**” azterlan xehatuaren **laburpen betearazlea** da. Datu xehatuak eta sektoreen araberako analisiak eskaintzen dituen txosten osoa webgune ofizialean dago eskuragarri: www.barrixe.com.

TESTUINGURUA ETA HELBURUAK

2007. urteaz geroztik, **barrixe - Bizkaiko Berrikuntza Behatokiak** azterlan hori egiten du etengabe, lurraldeko enpresa-sarearen eta berrikuntzaren artean dagoen lotunea aztertzeke asmoz, batez ere.

Ia-bi hamarkadatan, txostena erreferentziako tresna moduan sendotu da lurralde historikoko enpresa-sarearen jardura berritzailearen bilakaera, portaera eta erroketak aztertzeke orduan.

Aurtengo edizioak Bizkaiko enpresek berrikuntza euren negozio-estrategietan nola integratzen duten aztertzeke diagnostiko eguneratu eta zehatza eskaintzea dauka helburu, motibazio nagusiak, lortutako emaitzak eta haien garapena mugatzen duten oztopoak zein diren jakiteke asmoz.

ENPRESA-PROFILEN ANALISIA

Metodologia zorrotzaren bidez, azterlanean, jardura berritzaileak egiten dituzten konpainien kopurua zenbatzen da, baina, horrez gain, bertako prozesuen sistematizazioan ere sakontzen da **Bizkaiko Berrikuntza Indizearen bitartez, enpresa “berritzaileen” eta “ez-berritzaileen” artean portaera-profilak bereizteke asmoz.**

Horiek horrela, erabaki estrategikoak hartzeke baliozko jakintza eskaintzea da xedea, sektore pribatuarentzat nahiz lehiakortasuna sustatzeko moduko politika publikoen diseinurako.



Emaitzak erkatu egin daitezkeela bermatzeko eta nazioarteko estandar metodologikoei eusteko, azterlan honen kontzeptu-esparrua zehatz-mehatz oinarrituta dago **2018ko edizioko Osloko Eskuliburuko gidalerroetan**.

Eskuliburu horretan zehaztutako definizioaren arabera, produktu edo negozio-prozesu berria edo hobetua (edo bien arteko konbinazioa) da **BERRIKUNTZA**, betiere, establezimenduaren aurretiazko produktu edo negozio-prozesuetatik modu nabarian bereizten bada eta merkaturatu egin bada edo establezimenduan ezarri bada.

Horrez gain, azken eguneraketa metodologiko hori kontuan hartuta, berrikuntza-tipologiak erraztu egin dira (berrikuntza teknologikoaren eta ez-teknologikoaren arteko bereizketa desagertu da), eta funtsezko bi kategoria handitan bat egin dute:

❖ **PRODUKTUAREN EDO ZERBITZUAREN BERRIKUNTZA:** produktuaren berrikuntza ondasun edo zerbitzu berria edo hobetua da, betiere, enpresaren aurretiazko ondasun edo zerbitzuetatik modu nabarian bereizten bada eta merkaturatu egin bada.

❖ **PROZESUAREN BERRIKUNTZA:** prozesuaren berrikuntza negozio-prozesu berria edo negozio-eginkizun baterako edo gehiagotarako hobetutakoa da, betiere, enpresaren aurretiazko negozio-prozesuetatik modu nabarian bereizten bada eta ezarri egin bada.



Emaizak zehatzak eta adierazgarriak direla bermatzeko asmoz, edizio hau egitean ikerketa kuantitatiboa hartu da kontuan, eta honako ezaugarri metodologiko hauek ditu:ç

- ❖ **Unibertsoa:** Bizkaian kokatutako enpresak, sektore industrialekoak eta industriarekin lotutako zerbitzuetaoak direnak eta 6-100 langile dauzkatena.
- ❖ **Lagina:** azterketako unibertsoaren laginaren diseinu adierazgarriaren bidez hautatutako 2.000 enpresa.
- ❖ **Informazioaren bilketa:** 2026ko otsailetik apirilera dei-zentro batek telefono bidez egindako elkarriketak.

Edizio honek aztergai izandako enpresen berrikuntzaren ezarpen-maila nolakoa den aztertzea dauka xede, garatutako jarduera berritzaileak, haien motibazioak, lortutako emaitzak eta berritzeko oztopo nagusiak zein diren jakiteko.





BIZKAIKO BERRIKUNTZA: GAKOAK ETA ERRONKAK

BERRITZEKO GAITASUNA SENDOTU DUEN EKOSISTEMA BERRITZAILEA

2024ko portaera ezin hobea izan ondoren, enpresen jardura berritzailea normalizatu egin da 2025ean. Hori dela eta, ekitaldiko enpresa berritzaileen ehunekoa %39,9koa izan da. Aurreko urtean lortutako gehieneko historikoari dagokionez emaitza hori doitu egin bada ere, seriearen azterketak baieztatu egin du argi eta garbi dagoela oraindik ere duela hamarkada batekoa baino sendoagoa dela berrikuntzaren oinarria.

Bilakaera horrek, beraz, agerian utzi du oraindik ere Bizkaiko enpresa-sarearen egiturazko gaitasun moduan indartzen ari dela berrikuntza. Etengabe berritzen ari diren enpresen taldea zabala denez eta azken urteotan metatutako jardura-maila handiek bere horretan dirautenez, argi dago enpresa-ingurunea gero eta prestatuago dagoela berrikuntza bera hazkuntzarako estrategiaren osagai moduan integratzeko.

Testuinguru horretan, berrikuntzak ez die egoeraren arabera inguruabarrei bakarrik erantzuten, lehiakortasunerako eta egokitzapenerako elementu iraunkor moduan sendotu delako.

BERRIKUNTZAK BALIOA SORTZEN JARRAITZEN DU

Azterlaneko emaitzen arabera, oraindik ere berritzea apustu errentagarria da euren estrategian berrikuntza kontuan hartzen duten enpresentzat. Erakunde berritzaile gehienek ustez, garatutako proiektuek hasierako aurreikuspenak bete edo gainditu dituztenez, azken ekitaldietako arrakasta-maila handia da oraindik.

Balorazio on horrek eragin zehatzak ere izan ditu enpresen jardueran. Izan ere, berrikuntzak honako hauxe sustatu du: produktuen zein zerbitzuen kalitatea hobetzea, barruko prozesuak optimizatzea, arauen betearazpena indartzea eta gero eta lehiakorragoa den ingurunean erakundearen egokitzapen-gaitasuna handitzea.

Oro har, emaitza horien arabera ageri-agerikoa da oraindik ere berrikuntzak abantaila lehiakor nabariak sortzen dituela eta, horren ondorioz, Bizkaiko enpresa-sarearen hazkuntza-gaitasuna indartzen dela.



BERRIKUNTZAREN INGURUKO IKUSPEGI ESTRATEGIKOAGOA

Azterlanean adierazten denez, berrikuntza kudeatzeko modua oso era nabarian bilakatu da. Gero eta enpresa gehiagok euren berrikuntza-helburuei eusten diete, baita egoera ekonomiko zailetan ere. Hori dela eta, argi dago epe laburrak ez duela ikuspegi hori hainbeste baldintzatzen eta gaitasun iraunkorrak eratzea duela helburu nagusi.

Aldi berean, gero eta tresna gehiago erabiltzen ari dira berrikuntzaren kudeaketa indartzeko; esate baterako, sortutako jakintzaren babesa, berrikuntzen balorizazio ekonomikoa edo enpresen arteko lankidetza, produktu, prozesu eta irtenbide berriak garatzeko.

Bilakaera hori Bizkaiko Berrikuntza Indizean ere islatzen da. Izan ere, 2024an lortutako gehienekoari dagokionez doikuntzak egin badira ere, argi eta garbi dago bere egitura serie historikoaren hasierakoa baino aurreratua dela. Horren guztiorren ondorioz, badirudi enpresa-sarea antolatuagoak, elkarlanekoagoak eta jasangarriagoak diren berrikuntza-ereduetarantz bilakatzen ari dela.

GERO ETA ERRESILIENTEAGOA DEN ENPRESA-SAREA

Gaur egungo testuinguruan ziurgabetasun ekonomiko eta geopolitikoa nagusi dela kontuan hartuta, azterlanaren arabera zenbait adierazle daude Bizkaiko enpresek egokitzeko duten gaitasun handiagoaren erakusgarri.

Berrikuntza gero eta integratuago dago epe luzerako erabaki estrategikoetan, helburu berritzaileei eusten zaielako, enpresen aurreikuspenak egonkorrak direlako, lankidetza indartu egin delako eta berrikuntzaren kudeaketa apurka-apurka profesionalizatzen ari delako.

Oro har, elementu horien arabera, enpresa-sareak jarduera berritzaileari eusteko gaitasuna indartu du, baita hain onak ez diren egoeretan ere.



HURRENGO URTEETARAKO ERRONKAK

Aurrerapenak aurrerapen, azterlanak ageri-agerian utzi du oraindik ere alde handiak daudela enpresek berritzeko duten gaitasunean.

Berriro ere, batik bat honako ezaugarri hauek dituzten erakundeak izan dira jarduera berritzaile handiagoa garatu dutenak: antolakuntza-gaitasun handiagoak, nazioarteko orientazio handiagoa, berritzeko berariazko baliabideak eta beste erakunde batzuekiko lankidetzaz biziagoa.

Enpresa-sarearen zati adierazgarri batek, ordea, agerpen mugatua dauka oraindik horrelako dinamiketan.

Hurrengo urteetarako erronka nagusia lurraldeko oinarri berritzailea handitzea izango da, enpresa gehiagok berrikuntza euren kudeaketa-ereduan egonkortasunez integratzeko aukera izan dezaten eta, horrela, gero eta zorrotzagoa den ingurunean lehiatzeko dituzten gaitasunak indartu ditzaten.

BERRIKUNTZA ZABALAGOA ETA JASANGARRIAGOA SENDOTZEA

Hurrengo urteetarako aurreikuspenen arabera, egonkortasuna da nagusi. Enpresa gehienek aurreikuspenen arabera, gaur egun jarduera berritzailean daukaten mailari eutsiko diote, eta oso-oso gutxi dute maila hori murrizteko asmoa. Beraz, argi dago azken ekitaldian egindako ahaleginak bere horretan iraungo duela.

Aldi berean, oraindik ere finantzaketa lortzea da enpresek eskatzen duten laguntza nagusia, baina jarduera berritzaileak abian dituzten enpresek, batez ere. Inbertsioa suspertu, lankidetzaz bultzatu eta proiektu berrien garapena sustatzen duten tresnak indartzea erabakigarria izango da, enpresa-sarearen gaitasun berritzailea handitzen jarraitu ahal izateko.




Norabidearen edizio hau bere estrategian eta negozio-ereduan integratuago dagoen berrikuntzarantz bilakatzen jarraitzen duen enpresa-sarearen erakusgarri da. Nahiz eta 2024an erdietsitako gehieneko historikoaren ostean jarduera berritzailearen bizitasuna normalizatu den, adierazle nagusien arabera seriearen hasieran zegoena baino sendoagoa, prestatuagoa eta erresilienteagoa da ekosistema.

Bizkaiko enpresek ez dute berrikuntza bertan behera utzi. Izan ere, gero eta gehiagotan balioa sortzea xede daukaten berrikuntza-modu selektiboago eta antolatuagoetarantz bilakatzen ari dira. Barruko gaitasunen sendotasunak, enpresen lankidetzak, proiektuen jarraipenak eta lortutako eragin handiak bilakaera hori indartzen dute, gainera.

Hurrengo urteetarako erronka horrelako dinamikak enpresa-sare osora hedatzea izango denez, gero eta enpresa gehiagorentzat lehiakortasunerako, hazkuntzarako eta egokitzapenerako elementu iraunkorra izango da berrikuntza.

Edizio honetako emaitzen arabera, Bizkaiko enpresetako berrikuntza heldutasun handiagoko fasean sartu da.

2024an lortutako gehieneko historikoaren ondoren, enpresa-sarea egonkortu egin da honako hauxe ezaugarri bereizgarri duten enpresa berritzaileen oinarri sendoan: berrikuntzaren aldeko apustuari eustea, emaitza onak sortzea eta apurka-apurka gero eta zorrotzagoa den ingurunean lehiatzeko duten gaitasuna indartzea.





ENPRESA BERRITZAILEAK



2025

%39,9

2024

%47,8

Bizkaiko berrikuntzak bere zoru historikoa sendotu du, 2024ko gehienekoaren ostean doitu egin den arren.

2024an erdietsitako gorakada apartaren ostean, orduan serie historikoko gehienekoa lortu zela kontuan hartuta, ulertzeko modukoa da 2025ean jarduera berritzailea garatzen duten enpresa inkestatuen ehunekoa zuzendu izana eta **%39,9koa*** izatea.

Datu horren arabera aurreko urtearen aldean 7,9 ehuneko jaitsi bada ere, bilakaeraren azterketak nabarmendu egin du lurraldeko enpresa-sarearen eraldaketa-dinamika azken hamarkadako batezbestekoa baino askoz handiagoa izan dela berriro.


2007an hasitako serie historikoa modu zabalagoan aztertzean, agerikoa da Bizkaiko enpresen ekosistema heltzeko eta egonkortzeko fasean dagoela eta bere ibilbide historikoko erdialdean mugitzen ari dela.

Azken urteotako gorakadaren ondoren 2025eko datua (%39,9) zuzendu egin den arren, nabari-nabaria da 2014an erregistratutako zoru historikoaren gainetik dagoela, orduan adierazlea %29,9 jaitsi zen-eta. Hori dela eta, **gaur egungo enpresa-sarea aurreko ziklo ekonomikoetako baino erresilienteagoa da.**

Epe luzerako ikuspegiari esker, badago adierazlearen gorabeherak testuingururatzetik. 2017an enpresa berritzaileen ehunekoa %60,7koa izatean sabai historikoa lortu ostean, Bizkaiko enpresa-sarearen joera zerra-horzduna izan da, eta 2019. urteko aldaketa handia zein osteko susperraldia dauzka ezaugarri bereizgarri.

Oraintsuko bilakaeraren (2020-2025) arabera, zorua edo euskarria %40 inguruan sendotu denez, egiaztatu egin da berrikuntza ez dela lurraldeko egoeraren araberrako fenomeno, Bizkaiko enpresen talde egonkorrean sustraitutako egiturazko jarduna baizik.

***Aurkeztutako ehunekoak bat datoz azterketaren unibertsoan enpresen lagin adierazgarriari egindako inkestaren ondorioz lortutako zenbatespenekin.*





ENPRESA BERRITZAILEAK



Irizpide zabala ebaluatzean (azken 4 urteotan aldizka berritu duten enpresak), argi dago oraindik ere adierazlea bere ibilbideko erdialde-goialdean dagoela eta %52,7koa izan dela 2025ean.

Ehuneko hori, gainera, nahiz eta aurreko urteetako gorakadaren ostean doitu egin den, ageri-agerikoa da 2014an erregistratutako %49,4ko zoru historikoaren gainetik dagoela.

Bestetik, irizpide zorrotzaren arabera portaerak (azken 4 urteotan etengabe berritu duten enpresak) egiaztatu egin du oso-oso lehiakorak diren enpresen taldea erresilientea dela.

2025eko datua %27,3 jaitsi bada ere, epe luzerako azterketaren arabera egiturazko segmentu hori ondo baino hobeto dago bermatuta, eta serieko gutxieneko historikotik aldendu da. Izan ere, %21,5eraino ere jaitsi zen 2014. urtean.



Irizpide zorrotza

Etengabe berritu duten enpresak (4 urte)

2025

%27,3

2024

%31,8



Irizpide zabala

Aldizka berritu duten enpresak (4 urte)

%52,7

%61,4




Ekitaldiko berritzaileak

Ekitaldian berritu duten enpresak

%39,9

%47,6





ENPRESA BERRITZAILEAK

Enpresen ezaugarrien arabera




Berrikuntzan diharduten **langileen** agerpena da enpresa berritzaileen ezaugarri bereizgarriena.

Horrez gain, **berritzeko joera handiagoa da enpresen tamainaren arabera**; eta are handiagoa, enpresa esportatzaileen nahiz antzinatasun laburragoko enpresen artean.


Sektoreka, berrikuntza-maila handienak **zerbitzuetan eta merkataritzan** zein konponketan erregistratu dira.

Era berean, **abian jartzeko eta hazteko faseetan** dauden produktuak ekoizten dituzten enpresen jarduera berritzailea heltzeko edo behera egiteko faseetan daudenena baino askoz biziagoa da.


Sektorearen arabera




Tamainaren arabera




Enpresa esportatzailea




Berrikuntzako langileak




Enpresaren antzinatasuna



Produktuaren zikloa






2018ko Osloko Eskuliburuan zehaztutako tipologiaren arabera, berritzeko ahaleginek **“PROZESUEN”** berrikuntzak (**%29,7**) izan dituzte helburu nagusi, **“PRODUKTUEN EDOTA ZERBITZUEN”** berrikuntzen (**%24,1**) gainetik. Portaera hori 2024ko gehienekoen ostean ekosisteman egindako doikuntza orokorraren erakusgarri da, bi fronteetan atzera egin badu ere, oraindik ere jarduerarioarria sendoa delako enpresa-sarean.

Talde horren barruan, **produktu edo zerbitzu berriak edo merkaturako hobetutakoak** (**%17,3**) dira nagusi, enpresa bera helburu nagusi daukatenen aldean (**%15,1**). 2024an, ostera, alderantziz gertatu zen, enpresa bera izan zelako nagusi (**%25,4**), merkaturak xede zutenen aldean (**%21,5**).

Serie historikoa aztertzean (2019-2025), argi dago **prozesuen berrikuntza** (lerro urdin argia) Bizkaiko ahalegin teknologikoko lider etengabea izan dela, 2021. urtean izan ezik (**%29,5**). 2019an hasierako datua **%43,6**koa izan ostean, adierazle horren ibilbidea ziklikoa izan da, eta, 2025ean **%29,7**raino zuzendu arren, euskarri-balio historikoen inguruan egonkortzeko joera dauka.

Horren aldean, egiaztatu egin da **produktuaren edota zerbitzuaren berrikuntzaren** (lerro urdin iluna) portaera askoz ere lauagoa eta egiturazkoagoa izan dela. Seiurtekoan, hain zuzen ere, irmo ainguratuta egon da **%22** eta **%25** arteko urkilan, eta 2024an lortutako **%33,0**ko ezohiko gehienekoaren ondorioz baino ez da hautsi joera hori. 2025ean **%24,1**era itzuli denez, egonkortasun historikoaren bidera itzuli dela baieztatu da.





BERRIKUNTZA ARLOAK



EKOIZPENA,
BANAKETA ETA
LOGISTIKA



MARKETINA



ANTOLAKUNTZA

2025

%22,6

2024

%28,2

2025

%9,5

2024

%15,4

2025

%13,2

2024

%22,9

Prozesuen berrikuntzaren berriazko tipologiak aztertuz gero, ulertzeko modukoa da 2024ko historikoen aldean zuzendu izana.

Beherakada orokorra izan den arren, **ekoizpenarekin, banaketarekin eta logistikarekin lotutako kategoria (%22,6)** multzoko hedatuena eta erresistentzia handienekoa izan da berriro.


Kopuruari dagokionez, **antolakuntzako berrikuntza (%13,2)** agertzen da ondoren, eta epealdiko doikuntza nabariena eduki du 9,7 ehuneko jaistean.

Bestetik, **marketineko berrikuntza (%9,5)** azken lekuan dago kokatuta, arlo horri ez zaiolako hainbesteko lehentasunik eman indarreko ekitaldian.

Ekoizpenari, banaketari eta logistikari dagokienez, gaur egungo **atzeraldiak** hiru urteko hazkuntza iraunkorraren bolada hautsi du eta 2021eko antzeko gutxieneko mailalara (%22,4) itzuli da adierazlea.

Antolakuntzako berrikuntzaren portaera, ordea, ziklikoa izan da, aurtengo jaitsiera handi-handiak aurreko hirurtekoko goranzko joera neutralizatu duelako eta pandemian erregistratutako zorura itzuli delako.

Azkenik, **marketineko berrikuntza seriean lehentasun txikiena** izan duen arlo moduan sendotu da. Gaur egungo datua gutxieneko historikoa izan da, lehen aldiz %10eko atalasekoa baino txikiagoa izan delako.





2025

%79,4

2024

%74,7

Enpresa-sarean daukan eragin ona sendotzea eta haztea

Enpresa berritzaileen **%79,4k** aitortu egin dute gutxienez **eragin “handia”** lortu dutela euren jarduera berritzailearen ondorio zuzen moduan. Hori dela eta, hazkuntza nabaria izan da, 2024an erregistratutako %74,7ren aldean. Adierazle horrek apurka-apurka egin du aurrera 2021. urteaz geroztik, eta aurrerakada hori oso ona izan da ekosistemarentzat.

Horrez gain, berrikuntza abian jarri duten enpresa gehienek (**%94,8**) esanetan, eragin edo aztarnaren bat antzeman dute ezarpen horren ondorioz: txikia, ertaina edo handia.


2025ean, berrikuntzaren eragin nabariena **ondasunen eta zerbitzuen kalitate handiagoa** izan da. Izan ere, nagusi izan da indizean, **%42,5eraino** hazi da-eta (2024ko %38,4ren aldean).

Bestetik, **arauzko betekizunen betearazpena** pisu handieneko bigarren eragina izan da (**%40,0**), aurreko ekitaldiaren aldean (%43,0) zertxobait atzera egin duen arren.

Informazioaren trukearen (%34,3) eta erantzuteko epe laburragoaren (%32,0) urte arteko aurrerapena ona izan denez, erakundeek barruko eragiketek hobera egin dute.

Era berean, **laneko giroaren** inguruko iritziak ere hobera egin du (**%29,8ra** igo da-eta), baita **produktuen zein zerbitzuen gama handiagoa** eskaintzeko gaitasunak ere, modu adierazgarrian igo delako **%28,6raino** (2024ko %23,2ren aldean).

ERAGIN HANDIKO ONDORIO NAGUSIAK





2025

%72,9

2024

%74,1

Jarduera berritzailearen arrakasta sendotu da

AURREIKUSPENEN BETEARAZPENAREN maila %72,9koa izan denez, jarduera berritzailearen arrakastaren inguruko iritzia 1,9 ehuneko jaitsi da aurreko olatuaren aldean.


Hala ere, oso parametro onetan jarraitzen du, hau da, %70,0ren gainetik, aurreko olatuetan bezala.

Arrakasta-mailen banaketak ia ez du aldaketarik izan 2024tik, eta berresten du helburuen betetze-maila oraindik ere nagusi dela enpresa berritzaileen artean.

% 12,7k uste du berrikuntza erabateko arrakasta izan dela, hasierako itxaropenak ere gaindituz.

Bestalde, hamar enpresatik seik adierazi dute aurreikusitako helburuen zati handi bat bete dutela. Gainera, hamarretik bik adierazi dute emaitzak partzialki lortu direla.

Oro har, **balorazio negatiboak oso txikiak dira oraindik**, eta horrek erakusten du gogobetetze-maila handia dagoela lortutako emaitzekin.



- Erabat, arrakasta izan zuen
- Nahiko, helburuetako asko bete ditugu
- Zerbait, erdizka, erdibidean geratu gara
- Gutxi, espero genuena baino dezente urrundu gara
- Oso gutxi, porrot bat
- Ed/Ee

* Balantzea: % oso edo nahiko arrakasta - % oso arrakasta gutxi edo gutxi.



TRESNAK

Bizkaiko enpresek euren gaitasun batzuk sendotu dituzte, berrikuntza kudeatzeko. 2025ean, zertxobait igo da **euren asmakizunak edo jakintzak babesten** dituzten enpresen ehunekoa (%20,8), baita **euren kontabilitatean berrikuntzaren ondorioz sortutako onurak antzematen** dituzten enpresena ere (%22,0).

Aurrerapen horiek berrikuntza kudeatzeko eta baloratzeko tresnen ezarpen handiagoaren erakusgarri dira.

Nolanahi ere, berrikuntza berariazko xede dituzten baliabideen bilakaera desberdina izan da.

Berrikuntzarako berariazko aurrekontua duten enpresen ehunekoa (%19,7) zertxobait hazi bada ere, **I+G+b-ko jardueretarako sail teknikoa edo langileak** dauzkaten erakundeen proportzioak (%17,2) behera egin du. Hori dela eta, badirudi euspena handiagoa izan dela baliabide espezializatuak zuzkitzeko orduan.

Asmakuntzak edo ezagutzak **BABESTEN** DITUZTE



I+G+b-ko **SAIL TEKNIKO**A EDO **LANGILEAK** daukate



Egindako berrikuntzen onurak antzeman dituzte euren **KONTABILITATEAN**



Berrikuntzarako berariazko **AURREKONTUA** dute



■ 2025 ■ 2024



TESTUINGURU EKONOMIKOAREN ERAGINA

Baliabide materialak dosifikatu arren, oso modu nabarian jarri da agerian lurraldearen erresilientzia korporatiboa indartu dela.

Erakundeen **%57,1ek** merkatuko zailtasunen aurrean euren helburu berritzaileak aldatuko ez dituztela baieztatu dutenez, jauzi estrategikoa


ia-ia 13 ehunekokoa izan da 2024an erregistratutako %44,3ren aldean

Datu horrek baieztatu egin du ziurgabetasun ekonomikoaren aurrean Bizkaiko enpresek epe luzerako ikuspegi berritzailea bermatzea erabaki dutela

BERRITU EGITEN DUTE testuinguru ekonomikoa edonolako dela ere




BERRITZEKO HELBURUEI eusten diete egoera ekonomikoa edozein dela ere



■ 2025 ■ 2024



BERRITZAILEAK EZ DIREN ENPRESAK



BERRITZAILEAK EZ DIREN ENPRESAK



2025

%60,1

2024

%52,2

Merkataritzako eta barruko lehentasunek berrikuntza ezartzeko erritmoa zehaztu dute

2025eko berariazko ekitaldian, Bizkaiko enpresen **%60,1ek** inolako jarduera berritzailearik egin ez zutenez, gehikuntza 7,9 ehunekokoa izan da, aurreko ekitaldiko urteko egoeraren aldean (%52,2).

Erakundeei horrelako jarduerarik zergatik garatzen ez duten galdetu zaienean, oztopo nagusia merkatuko faktoreak direla adierazi dute. Aldi berean, gora egin du antolakuntzaren zurruntasuna oztoppo dela azaldu duten enpresen kopuruak. Kostu zuzenekin lotutako oztoppoak, ordea, zertxobait moteldu dira.

Enpresa-sareak aitortutako oztoppoak zatikatzean, kanpoko faktoreen pisua gero eta handiagoa dela baieztatu da.

Merkatuko arrazoiak lehenengo postuan sendotu direnez eta **%45,6raino** igo direnez (2024ko %42,7ren aldean), egiaztatu egin da inguruneke ziurgabetasunak edo berehalako merkataritza-sustapenik ezak egoeraren arabera berritzaileak ez diren erakundeen ia-ia erdien eraldaketa-planak geldiarazi dituela.

Barne-mailan, txostenak agerian utzi du joera era nabarian aldatu dela: **antolakuntzako arrazoiak** gora egin dutenez eta %14,9raino igo direnez, kostuko arrazoiak gainera daude aurretik, zertxobait moteldu direlako %11,9raino.

Onerako ordain moduan, “berrikuntzarik behar ez dela” zehatz-mehatz baieztatu duten enpresen ehunekoa **%19,2ra** jaitsi da (aurreko %22,5en aldean). Hori dela eta, badirudi berrikuntzaren garrantziaren inguruko kontzientziazioa eta aitortpena handiagoak direla, gaur egun arlo horretako jarduerarik izan ez arren.

BERRIKUNTZARAKO OZTOPOAK



Merkatuko arrazoiak

2025

%45,6

2024

%42,7



Ez da berrikuntzarik behar

%19,2

%22,5



Antolakuntzako arrazoiak

%14,9

%12,9



Kostuko arrazoiak

%11,9

%12,9



ENPRESEN LANKIDETZA



2025

%36,2

2024

%39,1

Enpresen lankidetza-tasaren doikuntza moderatua

2025ean, Bizkaiko enpresa berritzaileen **%36,2k** lankidetza-hitzarmenak ezarri dituzte, gaitasunak partekatzeko eta euren abantaila lehiakorak handitzeko.

Adierazle hori zertxobait zuzendu da, hau da, 2,9 ehuneko, 2024an erregistratutako gehienekoaren aldean (%39,1). Beraz, lurraldeko enpresa-sarean sustraitutako aliantza-kulturaren adierazgarri diren zenbakietan egonkortu da.



ELKARREKIN LAN EGITEN DUTE HAUXE LORTZEKO...

Lehentasunezko ikuspegiak balio-faseak dauzka oinarri: **produktu/zerbitzu berrien edo hobetuen diseinua** da nagusi, eta **%43,9ra** igo da. Ondoren, **ideien sorrera** dago hurbil-hurbil, **%33,5ekoa** izan da-eta

Horren aldean, eragiketen eta merkataritzaren arloko fronteak xede dituzten aliantzek pisua galdu dute: **merkatu berriak** irekitzeko hitzarmenak **%16,5era** erori dira; eta **ekoizpenekoak**, **%9,3raino**.


Produktu edo zerbitzu **BERRIEN EDO HOBETUEN** diseinua / garapena



Produktu edo zerbitzu berriei buruzko **IDEIEN SORRERA**



MERKATU BERRIAK garapena



Produktu berrien **EKOIZPENA**



■ 2025 ■ 2024



HONAKO HAUXE KIN LAN EGITEN DUTE...


Oraindik ere, hurbileko lankidetza sektoriala erreferentziako aukera nagusia da ekosisteman: elkarrekin lan egiten duten enpresen **%75,5ek** euren **sektore bereko** erakundeekin lan egiten dute (2024ko %72,9ren aldean).

Ikusienez, sektoreen arteko ingurunearekiko irekiera oso ona izan da: **beste sektore batzuetako enpresekiko** aliantzak indartsu igo dira **%27,3raino**; eta **bezeroekiko lankidetza zuzena**, **%21,0raino**.


SEKTORE BEREKO enpresak



BESTE SEKTORE batzuetako enpresak



BEZEROAK





BERRITZEKO ETORKIZUNEKO ASMOA



Produktuak eta prozesuek berritzeko asmoei eutsi diete zuhurragoa den merkatuaren aurrean

Hurrengo hirurtekorako azterketaren arabera, **Bizkaiko enpresa berritzaile gehienek egonkortasunaren alde egin dute** euren estrategietan.

Enpresa gehienek aurreikusi dutenez, gaur egungo jarduera-maila berberari ("**Berbera**") eutsiko diotenez, %70 baino handiagoa izango da zenbait arlotan; esate baterako, marketina, antolakuntza eta lankidetzak.


Sendotasunaren aldeko ikuspegi hori orokorra bada ere, hedatzeko ahaleginak ("**Handiagoa**") egingo dira negozio nagusiarekin lotutako aldagaietan: **produktuak eta zerbitzuak (%36,9)** eta barruko prozesuen optimizazioa (**%34,9**). Hori dela eta, hazkuntzaren inguruko proiektzioak handiagoak izango dira.

Ondorio nabarienetakoa **jarduera murrizteko aukeraren portaera marjinala ("Txikiagoa")** izan da.

Aztergai izan ditugun bost tipologiak kontuan hartuta, ehuneko hori tipologia bakar batean ere %3ra iritsi ez denez, gutxieneko zorua prozesuetako %1,7ren eta marketineko nahiz produktuetako %2,9ren artean kokatu da.

Inguruabar horrek agerian jarri du **ez dagoela berrikuntzan ez inbertitzeko arriskurik**, hazkuntzarako fronteak irekitzeko asmoaren erritmoa jaitsi den arren.

Bestetik, enpresen arteko lankidetzari (**%21,1**) eta antolakuntzako berrikuntzari (**%24,8**) erreparatuz gero, hedapenaren inguruko jarrera zuhurragoa izan da, lehendik zeuden egituren errentagarritasunari eman zaiolako lehentasuna.





2025

%75,2

2024

%84,6

Berrikuntza sustatzeko laguntza ekonomikoaren eskaera izan da nagusi

Berritzeko nolabaiteko laguntzaren bat eskatu duten Bizkaiko enpresen batez besteko kopurua **%75,2koa** izan da 2025ean.


Aurreko ekitaldian erregistratutako %84,6ren aldean laguntzen premia orokorrak behera egin badu ere, laguntza eskatzen duten erakunde ia-ia gehienak bat datoz, eskuragarri dauden gainerako tresnei barik finantzaketa zuzenari ematen diotelako lehentasuna.

Laguntzen premia hori askoz ere nabarmenagoa da enpresa proaktiboaren artean: enpresa berritzaileen **%86,6** sendoak berriaz eskatu du bere proiektuetarako laguntzaren bat, berritzaileak ez diren enpresen segmentuan erregistratutako %65,6ren aldean (bertan, %32,3k adierazi dute inolako laguntzarik behar ez dutela).

Laguntza-motak zatikatzean, **laguntza ekonomikoa** lider eztaba daezina izan da, **%54,3** lortu duelako maila globalean. Izan ere, **%66,3raino** igo da konpainia berritzaileen artean, eta %46,3koa izan da berritzaileak ez diren enpresetan.

Gainerako laguntzei dagokienez, bigarren mailakoak eta homogeneousak izan dira profilen artean, eta, bertan, honako hauexek nabarmendu dira: **orientazioa zein aholkularitza (%7,1), langileen gaitasuna hobetzeko ekintzak (%6,3) eta zerbitzu teknologikoak edo antzekoak eskuratzeko aukera (%4,5).**

Bigarren mailako arlo horietan guztietan, enpresa berritzaileen eskabide-maila ez-berritzaileena baino handixeagoa izan da, ekosistemarekin duten elkarreragin handiagoaren erakusgarri.





BIZKAIKO BERRIKUNTZA INDIZEA



BIZKAIKO BERRIKUNTZA INDIZEA



barrix - Bizkaiko Berrikuntza Behatokiak egindako **Bizkaiko Berrikuntza Indizea** adierazle sintetikoa da, eta lurraldeko enpresen heldutasun berritzailearen maila neurtzeko aukera ematen du. Gaitasunekin, estrategiarekin eta berrikuntzako jarduerekin lotutako aldagaien multzoa kontuan hartuta, bost mailatan sailkatzen ditu enpresak: Oso maila txikitik Oso maila handira. Horrela, errazagoa da urteen joan-etorrian haien bilakaeraren jarraipena egitea.

2025ean, Bizkaiko Berrikuntza Indizea zertxobait zuzendu da 2024an lortutako gehienekoaren aldean, nahiz eta argi eta garbi dagoen bere egitura seriearen hasieran antzemandakoa baino aurreratua dela.


Oso maila handian eta maila handian kokatutako enpresen segmentuaren guztizko pisua 4,4 ehuneko murriztu da. **Oso maila txikia**, ordea, %22,1eraino igo da, aurreko urteko portaera bikainaren osteko doikuntzaren erakusgarri.

Dena dela, oraindik ere, indizearen banaketaren arabera, agerikoa da enpresa-ekosistema aurreko ekitaldietan baino helduagoa dela.

Bilakaera hori hobeto ulertzen da, ibilbidea bera **2019.** urteaz geroztik aztertzean. Pandemiaren baldintzapeko lehenengo etapan (2019-2021), polarizazio handi-handia eta berritzeko gaitasunen ahulezia izan ziren nagusi. Gainera, Oso maila handian zeuden enpresen kopurua apurka-apurka gutxitu zen, 2021ean gutxienekora iritsi zelako (%7,6) eta beheragoko geruzetan metatu zelako neurri handi batean.

2022tik aurrera, enpresa-sarea iraunkortasunez hasi zen suspertzen, eraldaketa digitala sendotu zenean eta berritzeko gaitasunak indartu zirenean. Prozesu horren ondorioz, goragoko mailetan kokatutako enpresen kopurua gehitu zen etengabe, eta garapen txikieneko mailak murriztu ziren. Hori guztia, ordea, 2024an amaitu zen, indizeak serie osoko emaitza onena erdietsi zuenean.

2025eko zuzenketa txikiak ez du sakoneko joera hori aldatu. Emaitzen arabera, hain zuzen ere, badirudi **oso urte bikainaren ostean** gertatutako **normalizazioa dela** eta ez ziklo-aldaketa. Horrez gain, heldutasun berritzailearen maila aztergai izan dugun epealdiko lehenengo urteetan erregistratutakoa baino handixeagoa izan da berriro.





BIZKAIKO BERRIKUNTZA INDIZEA




Berrikuntza-indizearen azterketaren arabera, agerikoa da oso alde esanguratsuak daudela jarduera berritzaileak garatzen dituzten eta garatzen ez dituzten enpresen artean. Hori dela eta, enpresa-sare osoa maila ertainean dago kokatuta.

Argi eta garbi dago **enpresa berritzaileen** profila oso aurreratua dela: **hamar enpresatatik ia-ia sei (%59,8) Oso maila handian / Maila handian daude kokatuta**, eta **%9,2 baino ez daude Maila txikian / Oso maila txikian**. Portaera horrek baieztatu egin du lotura estua dagoela berrikuntzako jardueren garapenaren eta heldutasun berritzailearen maila handiagorearen artean.

Horren aldean, **berritzaileak ez diren enpresen** banaketa erregresiboa izan da erabat. **%46,6 Maila txikian / Oso maila txikian** daude kokatuta, eta **%13,4** baino ez daude goiko multzoan, berrikuntzako dinamikak garatzeko askoz ere gaitasun mugatuagoaren adierazgarri.

Bestetik, **Bizkaiko enpresa guztien** banaketa orekatua da, nahiz **eta Maila txikian / Oso maila txikian enpresa gehixeago dauden (%46,2), Oso maila handian / Maila handian dauden %28,4ren aldean**.

Banaketa horrek agerian jarri du hobekuntza-marjina handia dagoela enpresen sarean eta berrikuntzak eragin bereizgarria daukala enpresek indizean daukaten posizioan.



OSO BERRIKUNTZA-INDIZE HANDIA DUTEN ENPRESEN PROFILA



Antzintasun ertain-txikiko enpresa (< 25 urte)



I+G+b-ko langileak ditu



50 langile baino gehiago ditu



Laguntza publikoa eskuratu du



Enpresa-talde bateko kidea da



Beste erakunde batzuekin lan egin du bete-betean



Orientazio **esportatzaile** handia **du** (> %50)



Produktuaren zikloa merkaturatzeko fasean dago

NORA BIDEA

Laburpen betearazle honetan, barrixe.com webgunean oso-osorik eskuragarri dagoen txostenean oinarrituta egindako azterketaren ondorio nagusiak azaltzen dira. Bertan, adierazle guztiak ere badaude ikusgai, baita haien bilakaera historikoa eta informazio metodologikoa ere.

Horrez gain, [barrixe](https://barrixe.com)k honako honexeri buruzko beste azterlan batzuk ere argitaratzen ditu:

- Bizkaiko enpresetako eraldaketa digitala
- BaBesTu: Bizkaiko eta EAeko Jabetza Industrialari buruzko Azterketa
- Bizkaiko Kanpo Merkataritza, produktuen maila teknologikoaren arabera

[barrixe](https://barrixe.com) - Bizkaiko Berrikuntza Behatokia Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren eta Bilboko Merkataritza Ganberaren ekimena da, eta Bizkaiko enpresen berrikuntzaren inguruko jakintza eta jarraipena bultzatzea dauka helburu.

Buletinean eman izena, txosten eta adierazle berriak jasotzeko

<https://barrixe.com> info@barrixe.com